AUTOMOBILGINTZA

Europan parerik gabeko inteligentzia zentroa

EAEko automobilgintzak osagai sektoreari bultzada emango dion lehen inteligentzia zentroa izango du aurki. Aitzindaria da Europan eta Ermuan eta Zornotzan izango du egoitza. Kualifikazio handiko 250 profesionalek egingo dute lan eta urte amaieran prest izango da.

DANIEL UDALAITZ

EUROPAN AITZINDARI izango den Automobilgintzarako Inteligentzia Zentroa, Automotive Intelligence Center (AIC), eraikitzen ari dira Bizkaiko Boroan (Zornotza) eta Areitio Gainean (Ermua). Zentro berriaren helburu bakarra osagaien sektorean balioa sortzea da. Zentroaren egoitza nagusia egingo den Boroako lursailak Bizkaiko Foru Aldundiak duela 10 urte gorde zituen, Volkswagen autoen fabrika egiteko. Garai hartan Jose Ignacio Lopez de Arriortua euskal ingeniaria izan zen bultzatzailea.

Erakunde publikoak eta enpresa pribatuak 2006. urtetik ari dira proiektu hau elkarlanean lantzen. Esparru publikoari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiarekin batera, Zornotza eta Ermuko Udalak daude engaiatuak, gunea osatuko duten instalazioak hartuko baitituzte udalerri horiek. Esparru pribatuan, automobilgintzako osagaien hainbat enpresa eta Euskadiko Automobilgintza Clusterra (ACICAE) daude sartuta. Elkarte horrek zuzenduko du zentroa, eta talde aitzindari moduan jokatu du konpainiekin; konpainia horien interesen berri jaso eta proiektua abian jartzeko erantzukizuna hartu du. Proiektuaren lehen fasean Bizkaiko Foru Aldundiak 42 milioi euro ipini ditu. Joan den ekainean jakinarazi zutenez, beste 20 milioi euro emango dituzte.

J. M. /ARGAZKI PRESS

Inteligentzia zentroaren helburuetako bat da bertako enpresak deslokalizatzea saihestea.

Mundu mailako erreferentzia

Bi fasetan garatuko da AIC. Lehen fasean, eraikin zentrala eta bi garapen-unitate eraikiko dira Boroan, eta beste bost unitate Ermuan. Bigarren fasean, aldiz, Boroako instalazioen zabalkuntza egingo dute. Boroako eraikin nagusia datorren abenduan bukatuko dute eta Ermuko instalazioak, 2009ko hasieran.

AIC berria EAEko industriaren eta, bereziki, automobilgintzaren proiektu estrategikoa izango dela aurreikusten da. Izan ere, zentroak sektore horretan jarduten duten EAEko enpresak mundu mailako erreferentzia bihurtzeko funtsezko ekarpena egingo duelako uste osoa dute bultzatzaileek. Urte amaieran abiaraziko duten AIC helburu bakarrarekin jaioko da: osagaien sektoreari bultzada ematea.

Zer aterako da AIC aitzindari horretatik? Lehenik eta behin,

11.000 milioi eurotik gora 2007an

Automobilgintza sektoreak hazten jarraitu du EAEn azken urteotan, eta 2007an 11.020 milioi euro fakturatu zituen. Aurreko urtearekin alderatuta, %15eko igoera izan dela esan nahi du horrek, eta EAEko BPGren %17 hartzen du, gutxi gorabehera. Hazkunde honek, batez ere, kokatze global azkarrean, kanpoko merkatuetako salmenten igoeran eta etengabeko hobekuntza produktiboan du oinarria. Horixe diote, behintzat, joan den apirilean, Euskadiko Automobilgintza Clusterraren XV. urteurrenaren kariaz, ofizialki aurkeztu zituzten datuek.

Hona EAEko automobilgintzaren erradiografia zifra bidez:

✓ 300 enpresa.

✓ 500 ekoizpen unitatetik gora, 110 unitate baino gehiago Espainiako estatutik kanpo.

✓ Mundu osoan 76.000 langile, horietatik 40.970 Euskal Autonomia Erkidegoan.

✓ Egitura oso orekatua da: 28 talde industrial (batzuk multinazionalak), kanpoko 30 multinazional baino gehiago eta hainbat familia-enpresa, kooperatiba eta elkarte laboral.

✓ Merkatua: %72,1 kanpoan saltzen da; %53,3 Europan eta %18,8, Europatik kanpo.

✓ Produktuen dibertsifikazio handia: suspentsioa (%19), motorra (%18), txasisa (%15), eserlekuak (%13), balaztak (%15), transmisioa (%15) eta abar.

✓ Teknologia-prozesuen aniztasuna: mekanizatua (%65), injekzioa (%28), hotzetako estanpazioa (%21).

✓ Loturatan: lotura mekanikoa (%32) eta soldadura (%24) dira nagusi.

✓ Gainazalen akabera %46 dira, eta tratamendu termikoak, %33.

✓ Materialak: burdina (%76), plastikoak (%30) eta aluminioa (%20).

automobilgintza klusterraren zuzendari nagusi Ines Anituaren oharra aintzat hartu behar da. Anituaren esanetan, proiektu honen izaera berritzailea agerian uzten duen elementuetako bat, berau martxan jartzeko lehen pausoa industriak berak eman izana da. Bada, sortzen diren ideia berritzaileak mundu mailan sektoreak dituen joeratara egokitzea da helburua, beti ere enpresen beraien eskutik. Gainera ideia horiek, lehenik, ikerketan gauzatzea da asmoa eta, gero, automobiletan aplikatzeko hainbat irtenbide garatzea.

AICra bidean

Helburu horiek betetzeko konpromisoa hartu dute EAEn kokatuta dauden automobilgintza konpainiek. Dagoeneko bederatzi badira, eta automobilgintzan kualifikazio eta espezializazio handiko 250 profesional arituko diren AICra lekualdatuko dituzte beren I+G zentroak. Horietako asko instalazio berrietan kokatuko diren enpresetakoak dira. Ekimen honetan parte hartzen duten edo sartzeko konpromisoa hartu duten enpresak hauexek dira: Cie Automotive, ZF Lemfoder TVA, Pierburg, Amaya Telleria, Microdeco, Tenneco Automotive, Fersint, Bionor Transformación, P4Q, Gestamp, Maier, Inauxa, Fachosa, Grupo Cromoduro eta Lea Artibai.

Zentro aitzindari hau une berezian jarriko da abian. Osagaien sektorean oraindik krisi ekonomikoaren ondorioak nozitzen ez badira ere, inork ez du baztertzen azkenean eragina izan dezakeenik. Proiektu berriak egoera hobeto eramaten lagun dezake. Bestalde, EAEn berrikuntzaren aldeko apustua egin da, Europako erreferentzia bilakatu asmoz. Proiektu berri hau apustu honen adibide garbitzat jotzen da. Halaber, apustu berritzaile honen xedeetako bat automobilgintzako euskal enpresen deslokalizazioa saihestea da. Klusterraren zuzendariaren hitzak oso adierazgarriak dira: "Gure enpresak hemen daude eta kanpoan dituzte ezarpen produktiboak. Baina nahi duguna, bihotzaz gain, burua ere hemen geratzea da, bai euskal enpresei dagokienez, baita hemen kokatuta dauden kanpoko enpresak ere". ■

MURGIL ZAITEZTE BURDIN HARANEAN!

Bertan ikusgai:

- Euskal Burdinaren museoa
- Mirandaolako burdinola
- Artzantzaren ekomuseoa
- Ogiaren txokoa
- 50. urteetara bidaia, langileen ibilbidea
- Burdinolen taupadak ibilbidea

Urola garaia eskualdeko turismo bulegoa

Mirandaola Parkea (Legazpi)
Tel.: 943 73 04 28
www.lenbur.com
e.posta: mirandaola@lenbur.com